



haurrak,
ingurumenaren
zaindari

*Eskolako Agenda 21 ekimenaren
baitan biodibertsitatearen
inguruko proposamenak
egin dizkiote alkateari*

ale honetan zer?



- 2** Telefono interesgarriak
- 3** Proposamenak, kexak...
- 4** Azpeitia ezagutzen lehiaketa
- 9** Kutxarekin euskara hitzarmena
- 10** Erreportajea
- 12** Motxean
- 14** Gazteria sailaren udalekuak
- 15** Kirol Patronatua+Udal erabakiak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Paper birziklatuan egin 

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.



telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Ingurugiro Etxea		1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Fundazioa	943 15 17 13	2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Kontsumitzaileen		DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	N.A.N. Bulegoa	943 15 71 60	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48		
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60				
Eguneko Zentroa	943 15 74 96			Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Liburutegia	943 15 71 95	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Udaltzainak	943 15 13 13	AL-ANON Alkoholikoen		Astearte eta ostegunetan	
Suhiltzaileak	112	Sendiak	943 47 54 03	18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Igerilekua	943 81 41 21	Trenaren Museoa	943 15 06 77	12:00etatik 14:00etara.	
Polikiroldegia	943 81 30 69	Anbulategia	943 02 54 00	Baserritarren produktuen	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Larrialdiak	943 02 54 01	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Euskara Patronatua	943 81 45 18	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
				ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

Proposamenak, kexak...



Goena

Faborez, Azpeitian pagoz betetako baso (Goenako kanpa) bakarra dago familiarekin joateko aukera duguna eta ez dago urik, ez parrillarik, ez zabor ontzirik... Paraje ederra da benetan eta gutxi zainduta dago. Horregatik parrilla, ura eta zabor ontziak jartzeko eskaera egiten dut.

Familia asko

Arana Goikoko haur parkea

Arana Goikoan dagoen haur parkean hesi batzuk jartzea nahi dut, baloiak eta umeak ez daitezen bertatik irten.

Urrestillako bidegorria

Urrestillara bidegorria egiteko asmorik ba ote dagoen galdetzen dut, oinezkoak eta bizikletak batera ibiltzeko modukoa. Urrestillan gero eta jende gehiago bizi da eta ez dago biderik, errepide ertzean joateko arriskuarekin. Gainera, pantanoraino luzatu daiteke denborarekin. Eskerrik asko.

Mendiko bideetako pasabideak

Mendian ibili ohi naiz, eta seinalizatutako zenbait bidetan hala moduzko itxiturekin aurkitzen gara mendizaleok. Uste dut ez dela legezkoa itxiturak bidea oztopatzea, itxiturak lur sailetan beharko lukete eta ez bidea oztopatu. Gai honekin lotuta, zenbait herrialdetan itxiturak tradiziozko elementu bezala hartzen dira eta egurrezkoak eta tankera berdintsukoak egiten dira eta ez hemen bezala, somierrak aprobetxatu, burdin zaharrak... Hori aurrera eramateko, bai ingurumen, bai turismo edo baserriarrek zer ikusia duten instituzioek bultzatu beharko litzuke honelako lanak eta laguntzak eman. Menorca aldean, adibidez, hau asko zaintzen dute.

Ibai ertzak

Gure herriko ibai ertzak lotsagarriak daude, eta oraindik eta lotsa handiagoa kontutan hartzen badugu ura garbitzeko depuradorak jarri ondoren zenbat zabor iristen den hondartzetara. Udalak noiz behinka ibaietako zabor bilketa lanak egitea antolatu beharko lukeela uste du (plastikoak, erroberak, hesiak...)

Izarraizko bidea itxita

Hilabete bat baino gehiago da herritik Izarraitz alderako bidea itxirik duela Sahastizabal baserriaren inguruan pertsona batek. Zanga bat zabaldu eta

kito, gorago bizi diren baserritarrak konpon daitezela nahi duten bezala. Baimenik ba al du? Nork emana? Udalak akaso? Nahi duena egin al lezake edonork?

Imanol Elias

Baloi jokoak Erdi kalean

Erdi kalean bizi naiz. Nire ogibideagatik goizetik gauera kale honetan eguna ematen dut. Ia egunero eguerdi aldean, arratsaldean, gauean eta... edozein momentutan Intz tabernako zerbitzariak eta bezero batzuk kale erdian futbolekin ibiltzen dira. Behin baino gehiagotan munizipalei deitu diet, deitu bezain pronto etortzen dira beraiei arreta hartzera. Munizipalak alde egitean berriro hasten dira. Behin baino gehiagotan, munizipalak bi, hiru aldiz egun batean etorri behar izan dira baina alferrik, beraiek ez diete kasurik egiten. Nik galdetzen diot neure buruari ea zer gertatuko den umeren bati, helduren bati, aguraren bati edo edozein bizilaguni kolperen bat ematen badiote edo kale honetako negozioren baten edo bebaruren baten kristalak puskatzen badituzte. Ezin al da ezer egin hau debekatzeko? Nekatuta nago egunero arazo hau jasateaz. Ordenantza munizipalek ez al dute arautzen arazo hau Azpeitiko erdigunean?



www.azpeitia.net



Sartu zaitez **www.azpeitia.net** udal webgunean

- **Tramiteak eta ordainketak** etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.
- **Udal albisteak** uneoro ezagutzeko.
- **Zure kexa, iritzi eta iradokizunak** plazaratzeko.
- **Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra** eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.

- Herriaren inguruko **informazio erabilgarria** eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

- **Sexologia zerbitzua on-line:** hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezka on-line erantzungo ditu.
- **Udal liburutegia:** bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.

www.azpeitia.net. Udala zure eskura, klik batean.

OINARRIAK

1. Parte hartzen dutenen adina kontutan izanik, bi mailatan banatzen da lehiaketa, hamalau urte 2010. urtean beteko dituzten bitartekoak (GAZTEAK) batetik eta adin horretatik gorakoek bestetik (HELDUAK).
2. Maila bateko eta besteko orriak banatuko dira 2010ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, eta maiatzaren hasieran, bakoitzean 20 galdera egiten direla, eta bakoitzarentzat lau erantzun ematen direla.
3. Erantzun horietako bat bakarra da zuzena eta bera aukeratu ondoren, gurutzetxo bat (X) jarri beharko da egokitzen zaion laukitxoan.
4. Galdera guztiei edo ahalik eta gehienei erantzun ondoren eta ekainaren 15a baino lehen, Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan egongo diren gutunontzietan sartuko da galdera orria.
5. Derrigorrezkoa egiten da, gutunontzian sartu aurrez, galdera orria guztiz betetzea, hau da, izen abizenak, adina, helbidea eta partaidea bizi den herriaren izena idaztea.
6. Partaide bakoitzak, galdera orri bat bakarra aurkez dezake aipaturiko hil bakoitzean.
7. Bost galdera sorta horiek osatuko dute AZPEITIA EZAGUTZEN 2010 LEHIAKETA, eta irabazletzat erantzun egoki gehienematen dituztenak hartuko dira.

8. Sariak, honako hauek izango dira aipaturiko bi maila horietan:

Helduen maila

1. Saria: Bi lagunentzat astebukaera bat Iparraldeko landa-turismo etxe batetan.
2. Saria: Bi lagunentzat astebukaera Hegoaldeko landa-turismo etxe batetan.
3. Saria: Bi lagunentzat afaria Larrañaga jatetxean.

Gazteen maila

1. Saria: Ordenagailu eramangarria.
2. Saria: Informatikako denda batean gastatzeko txartel bat
3. Saria: Kirol-denda batean gastatzeko txartel bat

9. Berdinketak balitz, zozketa baten bidez erabakiko litezke aipaturiko sariak.

10. Udalak herriko jai nagusietan banatuko ditu sariak eta aurretik galdera guztien erantzun zuzenak ezagutaraziko dira.

OHARRA:

Lehiaketako orri hauen fotokopiak onartuko dira.



azpeitia
ezagutzen
lehiaketa



HELDUEN MAILA

1 Errealak Juan Antonio Larrañaga jokalaria ohiaren omenezko partida bat jokatu zuen selekzio baten aurka 1994ko maiatzaren 21ean Garmendipe futbol zelaian.

Nongo selekzioa?

- ☐ Errumania
- ☐ Polonia
- ☐ Portugal
- ☐ Bosnia

2 Nola deitzen zitzaion 1923an Aranako futbol zelaia inauguratu zuen azpeitiar futbol taldeari?

- ☐ Lagun Onak
- ☐ Umore Ona
- ☐ Danak Bat
- ☐ Unión Azpeitiana

3 Bere bizitzan, idazlea, historialaria, politikaria eta 1937an Euskadiko Fiskala izan zen azpeitiar bat jaio zen 1902ko abuztuaren 23an. Nor?

- ☐ Ildefonso de Gurrutxaga
- ☐ Kasto Orbegoza
- ☐ Ignazio Perez Arregi
- ☐ Tomas Inazio de Korta

4 Zer kiroletan eman ziren ezagutzera Joakin eta Joxe Manuel Aizpuru Unanue, urrestildarrak, Antxite anaiak?

- ☐ Aizkolaritzan
- ☐ Harri jasotzen
- ☐ Korrikalari bezala
- ☐ Txirrindulari bezala

5 Guztiz egokitu eta liburuxka bat aurkeztuz zabaldu zuen Donostiako Kutxa Munizipalak Azpeitian, Enparan dorretxea. Zein urtetan?

- ☐ 1970ean
- ☐ 1974an
- ☐ 1977an
- ☐ 1980an

6 Izarraitz Txistulari Taldeak disko bat aurkeztu zuen 1997an eta bertan azpeitiar txistulari baten lanak jasotzen ziren. Norenak?

- ☐ Sebastian Errazti Xaxurre
- ☐ Kruz Mari Frantzesena Belatxe
- ☐ Jose Mari Gurrutxaga Txokolo
- ☐ Jose Inazio Elias

7 Profesional mailara iritsi zen azpeitiar pilotari bat ezagutu zen Konfites deiturarekin. Nor?

- ☐ Benito Astigarraga
- ☐ Joxe Mari Olaizola
- ☐ Benito Uzin
- ☐ Joan Abarrategi

8 Bi azpeitiar maisuek egina da Soreasuko Sebastian donearen parrokoiko erretaula nagusia. Beraietako bat Martin de Olaizola. Eta bestea?

- ☐ Joan de Goiaz
- ☐ Andres de Leturiondo
- ☐ Frantzisko de Eizagirre
- ☐ Joan de Apaetzegi

9 Nork idatzia da *Kcappo Tempo di tremolo* deituriko eleberria, 1985ean argitaratua?

- ☐ Iban Etxaniz
- ☐ Pako Aristi
- ☐ Alaitz Olaizola
- ☐ Ramon Etxezarreta

10 Nuarbe Sokatira Taldeak 1980an izan zuen aukera lehen aldiz atzerriko txapelketa batean parte hartzeko. Baina, non?

- ☐ Belgika
- ☐ Italia
- ☐ Eskozia
- ☐ Suitza

11 Azpeitiko herriak ontzat hartu ez zuen erretore bat izendatu zuen 1388an Iruñeko apezpikuak. Nor?

- ☐ Gabriel Diaz
- ☐ Joseph de Santamaria
- ☐ Pelegrin Gomez
- ☐ Domingo Alcaraz

12 Azpeitiar pandero jotzaile ezagun bat hil zen 2000ko urtarrilaren 6an, 90 urte zituela. Nor?

- ☐ Migel Arregi Iturbide
- ☐ Antonio Aranaga Auntxa
- ☐ Imanol Arregi Iturbide
- ☐ Joxe Inazio Elorza

13 Elgoibartar maisu batek egina de Azpeitiko parroko San Martin kaperako burdinsarea. Nork?

- ☐ Pedro de Akorta
- ☐ Joseph de Lainzera
- ☐ Juan de Agirretxe
- ☐ Kristobal de Marigorta

14 Inazio Perez Arregiren anai batek argitaratu zuen 1956an *San Ignacio en Azpeitia* deituriko liburua. Jesuita zen, baina, bere izena?

- ☐ Juan Maria
- ☐ Antonio Joxe
- ☐ Pedro Ignacio
- ☐ Frantzisko Joxe

15 Ikasketak egiteko bide egoki bat sortu zuen herrian Nikolas Saez Elolak bere testamentuaren bidez. Zer?

- ☐ Gau eskola
- ☐ Margo eskola
- ☐ Eskultura eskola
- ☐ Gramatika katedra

16 Mariano Haro korrikalariak, 10.000 metro egin zituen Azpeitiko zezenplazan 1977an. Zenbat denboran?

- ☐ 27' 40"tan
- ☐ 29' 52"tan
- ☐ 30' 07"tan
- ☐ 31' 10"tan

17 Martinez Imprimategiak urteak daramatza lanean Azpeitian. Pablo Martinez-ek lortu zuen lanean hasteko baimena abenduaren 4an. Baina, zein urtetan?

- ☐ 1850ean
- ☐ 1854an
- ☐ 1856an
- ☐ 1899an

18 Gezurra badirudi ere, ondorioak ikusita, Urola trenaren modernizatzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak. Noiz?

- ☐ 1982an
- ☐ 1984an
- ☐ 1986an
- ☐ 1988an

19 Azpeitiar batek idatzia da, 1997an argitaratutako *Salud y Cocina* liburua. Nork?

- ☐ Joxe de Artetxe
- ☐ Gaudentxio Agirre
- ☐ Pedro Ibarzabal
- ☐ Julian Bereziartua

20 Iraurgi bailara aipatzen den eta ezagutzen den idatzirik zaharrena ba al dakizu noizkoa den?

- ☐ 1020koa
- ☐ 1024koa
- ☐ 1027koa
- ☐ 1030koa

Partaidearen datuak:

Izena: _____ Abizenak: _____

Helbidea: _____ Herria: _____ Urteak: _____

Telefono zb.: _____

Oharra: Derrigorrezkoa da ekainaren 15a baino lehen Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan dauden gutunontzietan uztea lehiaketako orri hau.



azpeitia
exagutzen
lehiaketa



GAZTEEN MAILA

1 Sindikatu Zaharra eraikina, beste zerbait izan zen aurrez. Zer?

- ☐ Herriko Udaletxea
- ☐ Mendi Bazkunaren egoitza
- ☐ Udaltzaingoa
- ☐ Oñazarren etxebizitza

2 Noiz eskaini zituen Urola Trenak azken bidaia publikoak?

- ☐ 1985eko maiatzaren 20an
- ☐ 1985eko ekainaren 27an
- ☐ 1986ko uztailaren 14an
- ☐ 1986ko urriaren 10ean

3 Noiz hasi zen lanean Juan Antxieta Musika Eskola?

- ☐ 1982-83 ikastaroan
- ☐ 1984-85 ikastaroan
- ☐ 1986-87 ikastaroan
- ☐ 1988-89 ikastaroan

4 Santiago kalean dagoen Gernikako zuhaitza Iturritxikin landatu zen 1904an. Geroago, oraingo lekura aldatu zen. Zein urtetan?

- ☐ 1907an
- ☐ 1910ean
- ☐ 1912an
- ☐ 1914an

5 Uztarria Koordinadorak argitaratutako *Loiolarik ez balitz* liburua bi idazleren artean idatzitakoa da. Horietako bat azpeitiarra du. Nor?

- ☐ Pako Aristi
- ☐ Iban Arregi
- ☐ Joxe Luis Otamendi
- ☐ Ramon Etxezarreta

6 Azpeitian frantziskotar mojen ordena sortzean zerikusi handia izan zuen emakume bati deitzen zitzaion *Lopeitxa*. Nori?

- ☐ Ana de Uranga
- ☐ Maria de Atxaran
- ☐ Maria Lopez de Enparan
- ☐ Marina de Zabalia

7 Nork idatzia da, *Azpeitia historian zehar* liburu mardula?

- ☐ Leopoldo Etxeberria
- ☐ Imanol Elias
- ☐ Jose Inazio Alberdi
- ☐ Julian Bereziartua

8 Bederatzi burniola zeuden lanean Azpeitian 1752an eta beraietako bat, lau etxe hauetako batean. Non?

- ☐ Egibar
- ☐ Zapatari
- ☐ Berrosueta-dorre
- ☐ Ibarluze

9 Sute batek suntsitu zuen Arauntza mendiaren oinetan zegoen Elormendi baserri zaharra. Noiz?

- ☐ 1975ean
- ☐ 1977an
- ☐ 1979an
- ☐ 1981ean

10 Azpeitiko Enparan sendiko seme bat, Avilako Kanonjea eta Santiago Ordenakoa izen zen. Nor?

- ☐ Manuel de Enparan
- ☐ Bixente de Enparan
- ☐ Inazio de Enparan
- ☐ Genaro de Enparan

11 Txaribar ingurutik abiatuz eta Santiago kaleko etxeen atzetik igaroz, irteera bat dago Gernikako zuhaitza dagoen ingurura. Nola deitzen zaio pasabide edo kaleari?

- ☐ Pendizpe
- ☐ Trinkete atzea
- ☐ Santiago-txiki
- ☐ Garbitoki bidea

12 Loiolatik Azpeitira bidean, lehengo bide zaharrak eta berriak bat egiten duten inguruan dagoen zubiak, aparteko deitura du. Zer?

- ☐ Iraurgi
- ☐ Azkune
- ☐ Juanelarro
- ☐ Sistiaga

13 Karmelo Etxegarai jaunak Azpeitian eskaini zuen Euskaltzaindian sartzeko hitzaldia. Noiz?

- ☐ 1918an
- ☐ 1922an
- ☐ 1925ean
- ☐ 1927an

14 Boliviako La Plata hirian, azpeitiar ongile bat hil zen 1551n. Nor?

- ☐ Joan Ibañez de Garagarza
- ☐ Ochoa Lopez de Arriaga
- ☐ Migel Lopez de Bikuña
- ☐ Pedro de Arostegi Odriozola

15 Noiz kaleratu zen lehen aldiz Landetako Egizale elkartearen Helduen Danborradan?

- ☐ 1957an
- ☐ 1960an
- ☐ 1963an
- ☐ 1966an

16 Gipuzkoako Herri Arteko Pilota Txapelketa irabazi zuen Azpeitiak 2004. urtean. Nongo ordezkariak izan zituen finalean?

- ☐ Azkoitia
- ☐ Donostia
- ☐ Hernani
- ☐ Solaluze

17 XX. mendearen lehen zatian ezagutu zen Azpeitiko Ijito Txikia izeneko korrikalari bat. Nor zen bera?

- ☐ Pablo Gogorza
- ☐ Lorentzo San Julian
- ☐ Joxe Aizpuru
- ☐ Gregorio Ruiz de Aguino

18 Orain urte batzuk, Mantekape izenarekin ezagutzen zen Azpeitiko txoko bat. Non aurkitzen zen?

- ☐ Enparan kalean
- ☐ Erdi kalean
- ☐ Buztinzuri errebaletan
- ☐ Plaza Nagusian

19 Bi errekek bat egiten duten inguruan daude kokatuta Matxinbenta auzoko etxe gehienak. Bat Izazpi-erreak da eta bestea?

- ☐ Pagotxeta-erreak
- ☐ Oto-erreak
- ☐ Atxumarria-erreak
- ☐ Eder-erreak

20 Non aurkitzen da Azpeitiak antzina izan zuen Udal izoztegia?

- ☐ Arauntzan
- ☐ Oñatzen
- ☐ Elosiaga auzoan
- ☐ Izarraitzen

Partaidearen datuak:

Izena: _____ Abizenak: _____

Helbidea: _____ Herria: _____ Urteak: _____

Telefono zb.: _____

Oharra: Derrigorrezkoa da ekainaren 15a baino lehen Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan dauden gutunontzietan uztea lehiaketako orri hau.



Euskara lan mundura hedatuz doa

Azpeitiko Udalak eta Kutzak hitzarmena sinatu dute beraien arteko harremanetan eta bulegoetan euskararen erabilera areagotu dezaten



Urola Erdia eta Urola Kostako udaletako eta Kutzako ordezkariak.

azpeitiko Udalak eta Gipuzkoa Donostia Kutzak hitzarmena sinatu dute euskararen erabilera bultzatzeko asmoz. Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Beizama, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaiako udalerriekin batera (Errezil eta Bidegoian laster gehituko dira ekimenera) izenpetutako akordioaren helburu nagusia erakundeen arteko harremanetan eta aurrezki entitateak eskualdean dituen bulegoetan bezeroekin dituenetan euskararen erabilera areagotzea da.

“pisudun urratsa eman dugu euskararen normalkuntzaren bide luzean”

Julian Eizmendi alkateak akordioaren garrantzia azpimarratu nahi izan zuen: “Pisudun urratsa eman dugu euskararen normalkuntzaren bide luzean. Gainera, nabarmentzekoa da Kutxa bera izan

dela ate-joka etorri dena proiektua bideratzeko. Eskertzekoa da honelako erakunde batek egindako apustua euskara bultzatzeko, normalean ez baita horrela gertatzen”, azaldu zuen Eizmendik.



Julian Eizmendi alkatea akordioa sinatzen.

Hitzarmenak bost urteko iraupena izango du eta behin epe hori amaitutakoan, berritzeko aukera egongo da bi aldeak ados egonez gero. Era berean, akordioa bete, zaindu eta bideratzeko jarraipen batzorde bat eratuko dute eta lan hau

errazteko helburuarekin, Kutzak tresna informatiko bat sortu du, honela, jarraipen batzordeak udaletxeen zein Kutzaren datuak jasoko ditu, eta horiek aztertu ondoren eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

“denok erakutsi behar dugu konpromisoa eta bide honetan elkarlana eta jarraipena garrantzitsuak dira”

Kutzaren gizarte eta komunikazio arduradun Carlos Ruizek esanetik egitera igarotzeko garaia heldu zaiela adierazi zuen: “Euskararen alde geundela esaten genuen garai haiek pasatu dira eta gure bezeroei kalitatezko zerbitzua eskaini nahi diegu. Denok erakutsi behar dugu konpromisoa eta bide honetan, elkarlana eta jarraipena garrantzitsuak izango dira”.

Ingurua zaintzeko 2.195 arrazoi

Azpeitiko ikastetxe guztietako ikasleek 'Biodibertsitatea: elikadura eta osasuna' gaia jorratu dute aurtengo Eskolako Agenda 21 egitasmoaren baitan



Ikastetxeko haurrak udal ordezkariekin udalbatza bereziaren ondoren.

azpeitiko etorkizuna dira eta ahalik eta inguru hoberenean bizitzeko saiakera egiten ari dira herriko haurrak. 2003-2004 ikasturteaz geroztik, Eskolako Agenda 21 egitasmoan parte hartzen ari dira Karmelo Etxegarai, Ikasberri, Iraurgi eta Urola ikastetxeak. Aurtengo ikasturtean 2.195 ikasle aritu dira inguruko biodibertsitatea aztertzen. Ez da lehen aldia, iaz ere gai berdina landu zuten, baina aurten elikadura eta osasunarekin lotutako gaiak izan dira protagonistak.

Honela, urtean zehar egindako azterketa eta ondorioak Julian Eizmendi alkateari aurkeztu zizkioten maiatzaren 6an izandako audientzia berezian eta Eizmendik, proposamen guztiak banan-banan erantzun zituen, 21 guztira. Sendabelarrak ez galtzeko ikastaroak eta tailerrak antolatzea, bertako produktuak indartzeko erraztasunak eman, kontsumo ohiturak aldatzeko kanpainak egitea, Azpeitia transgenikoetatik libreko eremua izendatzea, nekazal biodibertsitatea mantentzeko eta babesteko etxebizitza eta industria

gune kopurua beharren arabera eraikitzea eta ahal den neurrian ez egitea baratzentzako egokiak diren lurretan edota kontsumo ekologikoko taldeak ahalbidertzeko erraztasunak ematea izan ziren proposatutako zenbait gai.

Hauen aurrean, bertako produktuak eza-gutu eta kontsumitzeko kanpaina desberdinak egiten ari dela Udala adierazi zuen Eizmendik. Ingurugiro Etxea Fundazioaren bidez Ereiten programa dagoela gogoratu zuen eta bertatik bideratzen direla herrian zehar jarri diren baratzak berriak, ikastaroak eta lehiaketak. Era berean, orain urte batzuk 3. adinekoentzat baratzak jarri ziren eta momentuan 45 pertsona daudela izena emanda esan zuen, "oso arrakastatsua da eta 150 metro karratu baratzak zuzentzen dira horretarako".

"ostiraletako azoka herriko gune desberdinetara zabaltzeko ideia badago"

Ostiral arratsaldetako azokari dagokionez, haur batek herriko beste auzoetara zabalduko den galdera luzatu zuen eta momentuz plazan jarraituko duela baieztatu zuten ordezkariak: "Hasiera da eta sendotzeko helburuarekin dabil, horregatik momentuz ez da mugituko baina gune desberdinetara zabaltzeko ideia hor dago, Sanjuandegira edo Urrestillara".

Produktu transgenikoak debekatzeko ahalmenik ez badu ere, Udala honelako jakiak ez kontsumitzearen alde dagoela agertu zuen alkateak eta bakoitzaren kontzientziaren arabera dagoela gaineratu zuen, "produkturen bat erosterakoan etiketak begiratuta jakin dezakegu genetikoki aldatuta dagoen edo ez".

Audientzia bereziarekin amaitzeko, Eizmendi alkateak ikastetxeak eta haurrak zoriondu nahi izan zituen "urte guztian zehar egindako lanagatik, oso gai garrantzitsua jorratu duzue. Konpromisoak hartu dituzue, eta orain bete eta zabaltu egin behar dira".



Baratza ekologikoaz ikasteko parada

Ingurugiro Etxea Fundazioak Baratzagintza ekologikoari buruzko ikastaroa antolatu du udaberri eta udazkenerako, landa eremua eta bertako produktuak gizarteratu eta sustatzeko helburua duen Ereiten egitasmoaren baitan. Udaberriko saioak maiatzaren 26an eta 27an eta ekainaren 2an eta 3an egingo dira 18:00etatik 20:00etara eta izena emateko azken eguna hil honen 21 izango da. Inskripzioa guztiz doakoa da eta horretarako 943 151713 telefono zenbakira deitu, ingurugiroetxeafundazioa@azpeitia.net helbidera idatzi edota www.ingurugiroetxea.org web gune bidez egin daiteke. Ikastaroan landuko diren gaiak baratzeazaintzaren sarrera eta oinarriak, lurraren lanketa eta kontserbazioa eta zainketa izango direla aurreratu dute antolatzaileek. Ikastaro honek udazkenean jarraipena izango du eta urrian banatuko dela aurreikusi dute arduradunek.



Azpeitiaren bigarren loraldia abian

Azpeitiko balkoi eta leihoak bigarren urtez jarraian loratuko dira, Udalak Loraldi lehiaketa abian jarriko baitu udaberri eta uda hasierarako. Modu honetan, parte hartu nahi duten herritarrek etxeko leiho eta balkoiak lore, igokari edota landarez apaindu beharko dituzte. Apaintzerako orduan ez da mugarik izango, bakoitzaren imajinarioarena izan ezik eta betebeharrak bakar, uztaileko oparo aldian egotea izango da. Uztailearen 5etik 9ra aurre-aukeraketa egingo da eta hautatutakoekin argazki erakusketa bat zabalduko da uztailearen 12tik 21era, bertan, herritarrek euren gustukoak aukeratu ahal izango dituzte. Azkenik, uztailearen 25ean, Santio egunean, emango dira irabazleen izenak. Hiru sari nagusi banatuko ditu Udalak; balkoi edo leiho berritzaileena, balkoi edo leiho tradizionalena eta herritarren saria. Hirurek, nekazal etxe batean gau bat edo lora denda batean erosketak egiteko balea eskuratuko dute. Loraldi lehiaketa iaz antolatu zen lehenbizikoz, Eskolako Agenda 21 programan parte hartu zuten ikasleek alkateari luzatutako eskaera baten ondorioz.



Bigarren eskuko azokak gordailu sistema estreinatuko du

Azpeitiko Bidezko Merkataritza eta bigarren eskuko merkatuak bosgarren edizioa beteko du aurtengo maiatzaren 28an 17:00etatik 20:30era eta berrikuntza moduan, gordailu sistema ezarriko dute arduradunek. Prozedura honen bidez, salmenta-postua erreserbatu nahi ez dutenek (ezin dutelako bertan egon, gauza gutxi dituztelako...) beren gauzak eraman ditzakete plazara 16:00etatik 17:00etara bitartean eta antolakuntza arduratuko da hauen salmentaz. Arropa ez, beste edozer gauza onartuko da: liburuak, jostailuak, apaingarriak, altzari txikiak, kirol-materiala, bizikletak... material guztia erabilitakoa izan eta egoera onean egon beharko du. Merkatua amaitzean dirua edo saldu ez dena jasotzera itzuli behar da. Dena den, salmenta postua erreserbatu nahi duenak 943 670249 telefonora deitu beharko du. Azoka horretan bidezko merkataritzak ere tokia izango du, ikuspegi sozial eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako produktuak saltzen, besteak beste, elikagaiak, eskulanak eta apaingarriak.

Abian da Euskal Antzerki Topaketetako kartel lehiaketa



Lanak maiatzaren 29a baino lehen
utzi beharko dira udaletxean

azpeitiko Udalak abian jarri du dagoeneko XXVIII. Euskal Antzerki Topaketetako kartel lehiaketa. Kartel irabazlea udazkenean egingo diren Euskal Antzerki Topaketak iragartzeko erabiliko da eta horregatik, XVIII. *Euskal Antzerki Topaketak. 2010eko udazkena* zehaztea beharrezkoa izango da aurkeztutako lanetan. Nahi duen pertsona orok aurkeztu dezake lehiaketara, baina parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu, edozein teknika edota material erabilita. Aurkeztutako lanek izan beharko duten neurria, 450 milimetro zabal eta 680 milimetro altu dira. Proposamenak maiatzaren 3tik 29ra bitartean aurkeztu beharko dira udaletxeko hirugarren solairuan kokatzen den Kultura sailean eta aurkeztutako lan guztiekin erakusketa bat zabalduko da Betharram eraikinean ekainaren 7tik 20ra bitartean. Bertan, herritarrek gustukoena lana bozkatu ahal izango dute. Epaimahaiak uztailan jakinaraziko du azken erabakia eta irabazleak 900 euro jasoko ditu sari bezala.

Urkomek landa eremuko plastikoak jasotzeko kanpaina abian du



Bailarako bilketa puntuak zehazten dituen
diptikoa kaleratu dute

Ianda eremuan erabiltzen den plastikoaren bolumena gero eta handiagoa dela ohartuta, Landa Garapen Elkartek, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, baserrietan sortzen ziren plastiko desberdinak kudeatzeko zerbitzua jarri zuen martxan 1999 urtean. Plastiko bilketa zerbitzua Urkomek eramaten du Urola Kosta eskualdeko 11 herrietan (Azpeitia barne) eta elkarteak lehendakari den Manuel Labakaren esanetan, "azken urteetan jasotako tona kopuruak nabarmen egin du gorantz; 2007an 57.960 kilo jaso ziren, 2008an 70.600 kilo eta iaz 77.700 kilo. Gainera, 2010ko aurreikuspenak ere hazkuntza mantentzearenak dira".

Hori dela-eta, beharrezkoa ikusi dute momentu honetan bilketa puntuak zehaztea eta horretarako diptiko berri bat argitaratu dute informazioa zabaltzeko asmoz. "Ekintza xumea baina garrantzitsua da eta kasu honetan, Urkomek egindako lana eskertu behar da. Aipatzekoa da baita ere, plastikoaren bilketa egin ondoren, materiala birziklatzera emango dela", adierazi du Juan Carlos Zuloagak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendari Nagusiak. Diptikoaren banaketa udaletan, sindikatu eta gestio etxetan, nekazal bulegoetan eta mankomunitateetan egingo da.

Loiolako turismo bulegoak 1.163 bisitari hartu zituen Aste Santuan



Gehienak Katalunia, Madrid eta Valentziar
Erkidegotik etorritakoak izan dira

aste Santuko oporraldia apirilaren 1etik 11ra bitartean izan zen eta tarte horretan, Loiolako Santutegiko turismo bulegoak 1.163 bisitari hartu zituen. Bisitarien %45, gehienak, Espainiako Estatutik etorritakoak izan dira, Katalunia, Madrid eta Valentziar Erkidegotik batik bat, %29 Euskal Autonomi Erkidegotik etorriak eta azkenik, %26 atzerriarrak izan dira, Frantziarrak eta Hego Amerikarrak. Nahi zuten informazioari dagokionez, inguruko zerbitzuei buruzko informazio bila etorri dira gehienak; Santutegiko ordutegiak, Trenaren Museoa, inguruko jatetxeei buruzkoa... "Gipuzkoako gainontzeko baliabide turistikoek gainean ere interesa agertu dute, besteak beste, Arantzazuko Santutegia, Mirandaolako parkea edota Zumaiako kostaldeko Flysh-aren inguruko bisitei buruz", gaineratu dute Iraurgi Lantzeneko arduradunek. Oro har, Aste Santuko oporraldiaz egiten den balorazioa positiboa da, "aurreko urteko datu positiboak mantendu direlako eta bisitarien beraien aldetik jaso diren iritziak orokorrean onak izan direlako, bai gure herriei buruzkoak nahiz bertako baliabide turistiko eta zerbitzuen ingurukoak", agertu dute.

Urrestillak irailean izango du haurtzaindegia



Zerbitzu berriak 0 eta 3 urte arteko
haurrak hartuko ditu

hainbat herritarren behar eta eskaerei erantzunez, Urrestillako haurtzaindegia 0 eta 3 urte bitarteko haurrak hartuko ditu irailetik aurrera. Hasiera batean, 0 eta 2 urteko umeentzako zuzenduta bazegoen ere, herritarrek egindako eskaera kopurua ikusita, Azpeitiko Udalak Haurreskolak Patzuergora jo zuen eskaera guztiak bideratzeko eta Patzuergoak, adin tarte 3 urte arte zabaltzea onartu zuen. Urrestillako zerbitzu berria 2008 eta 2010 urteen artean jaiotako haurren gurasoei zuzenduta egongo da beraz. Horrela, udal ordezkariak izena emateko epea zabaltzeko, maiatzaren 14ra bitartean, eta interesa duten guztiak udaletxeko Kultura sailera joan beharko dute informazio gehiago edota esku-orriak eskuratu nahi badituzte. Auzoko eskola zaharretako bi eraikin berrituak izan dira haurtzaindegia berria egokitu ahal izateko; lehengo haur eskola zena eta hauteskundeetarako gelaren ondoan dagoen gela, hain zuzen ere. Lanak Espainiako Gobernuak obra publikoak sustatzeko emandako diru-laguntzei esker egin ziren 2009 urtean zehar.

Uztaileko udalekuak prestatzen hasi da Gazteria saila

Udako programazioan parte hartuko duten haurrak adinaren arabera banatuko dira



Udako oporraldien gertutasuna ikusirik, Udal Gazteria saila uztaileko udalekuak prestatzen hasi da dagoeneko. Udako programa haur eta nerabeei zuzenduta dago eta izaera hezitzailea eta soziala du helburutzat.

“udako oporraldia,
herri mailan
jarduerak bultzeko garai
aproposa da”

“Udako oporraldia, herri mailan talde jarduerak bultzatzeko garai aproposa da. Eskolak bere jarduera bertan behera uzten du, ikasturtea amaitzen da eta hori dela eta, familiak urte osoan zehar eraman duen erritmoa eten egiten da. Honek guztiak egunerokotasunean du eragina: ordutegi falta, denbora libre gehiegi izateak ekar dezakeen desegituraketa, ikasturtean zehar egindako lagunartea...”, adierazi dute arduradunek.

Horrela, urtean zehar adin tarte desberdinei bideratutako programei jarraipena emateaz gain, 4 urtetik hasi eta 17 urte bitarteko haur eta

nerabeentzako udalekuak antolatu ditu, adinaren arabera banatuta:

Udan Txiki

2006 urtean jaiotakoak
(Haur Hezkuntza 3)

Udan Koxkor

2004 eta 2005 urtean jaiotakoak
(HH4 – HH5)

Udan Jolas

2002 eta 2003 urtean jaiotakoak
(Lehen Hezkuntza 1 –LH2)

Udan Mugi

2000 eta 2001 urtean jaiotakoak
(LH3 – LH4)

Udan Alai

LH5 –LH 6

Udabentura

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1, 2, 3, 4

Udan Txiki, Koxkor, Jolas, Mugi eta Alai programazioei dagokienez, uztailean bi hamabostalditan egiten dira eta

Udabentura, aldiz, hilabete osoan zehar egiten da, “egunetan banatuta, modu honetan, bakoitzak bere interesen arabera, nahi duen ekintzan parte hartu dezake” gaineratu dute arduradunek.



Izen-emate epea maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik eta inskripzioa egin edota informazio gehiago eskuratzeko, Udaltzaingoen ondoan kokatzen den Gazte Informazio Bulegora jo edota 943 157060 telefono zenbakira deitu beharko da.

7 hilabetetatik 2 urte arteko umeentzat igeri ikastaroak



Kirol Patronatuak adin guztietako pertsonen zuzendutako saioak antolatzen ditu



Haur txikien ikastaroko talde bat.

azpeitiko Kirol Patronatuak urtean zehar eskaintzen dituen jarduerak eta ekintzak hamaika dira eta hauen artean, herritar guztiei zuzendutako igeriketa ikastaroak aurkitzen dira. Orain arteko eskaintza are gehiago zabaldu da eta 7 hilabetetatik hasi eta 2 urtera bitartekoentzat bideratutako saioak jarri dituzte abian. Hiru hilabetetako iraupena duen ikastaroa larunbatetan izaten da 10:00etatik 11:30era arte eta gurasoen partaidetza beharrezkoa da.

Ikastaro berri honetan, ume txikiekin ekintza desberdinak ematen dira aurrera uretan honek eragiten dieten onurekin, besteak beste, psikomotor garapena, bihotz-arnasketa eta immunologia sistemen sendotzea, adimen-kontzientzia gehitzea, jolas giroan sozializatzen hastea, bizi-iraupen trebetasunak garatzea eta lasaitasuna eta segurtasuna lantzen.

Gainontzeko ikastaroak ere adinaren arabera banatuta daude, honela, 2 eta 4 urte

bitartekoentzat, 4 eta 7 urte bitartekoentzat, 7 eta 13 urte artekoentzat eta azkenik, 16 urte baino gehiago dituztenentzat.

“Heldu eta adineko pertsonentzat kirol-lik onena da igeriketa, ia bakarrik bizkarreko arazoak edo asma dituztenentzat, eta bakarrik haurdun dauden emakumeentzat. Bestalde, gorputz osoa lantzen denez, ia ez dago igerian eginez lantzen ez den gihar-talderik. Lepotik hasi eta orkatilaraino dena mugitzen da eta aldi berean gainera”, diote Kirol Patronatuko arduradunek. Izan ere, uretan egiten den kirola izanik, pisugabetasuna sentiarazten du eta honek giharretako tentsioak murrizten ditu. Era berean, tentsio arteriala duen jendearentzat laguntza handia suposatzen du, gorputz-adarretatik bihotzera odolaren itzulera errazten baitu.

Igeri ikastaro batean izena eman edota informazio gehiago nahi duten herritarrek igerilekura joan edota 943 813069 telefono zenbakira deitu behar dute.

Maiatzaren 6an Udalbatza osoak egindako bilkuran hartu ziren erabakiak ondorengo hauek izan ziren:

1.- 2010eko martxoaren 30ean egindako bilkuraren akta onartzea.

2.- Julian Elorza, 4ko etxebizitza tasatuen behin betiko kalifikazioa.

3.- Etxebeltz Izarra eremuan minusbalotasun fisikoa duten pertsonentzako zuzenduak dauden babes ofizialeko bi etxebizitzaren esleipenak.

4.- Azpeitiko Udal Barneko Erabilera Plana 2010-2013 eta 2010. urterako gestio plana onartzea.

5.- Azpeitiko Emakume eta Gizonen Berdintasunareko Udal-plana onartzea.

6.- San Inazioetako zezenketako kartel lehiaketan Udalak parte hartzerik ez duela publikoki esatea.

agendamaiatza

MAIATZA

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24 ³¹	25	26	27	28	29	30



14, ostirala

SAN ISIDRO JAIK-ARATZ ERREKAN

Arratsaldetik gau aldera arte, txupinazoa, poteoa, mami-jana, Etxaniz eta Irigoyen soinu-joleak eta baratxuri zopa.

14tik 23ra,

Udane Juaristi erakusketa
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

15, larunbata

SAN ISIDRO JAIK-ARATZ ERREKAN

Egun guztian zehar, itxaferoak, mendi itzulia, meza nagusia, biterreoa, pilota partidak, bazkaria, mus txapelketa, triki poteoa, izurrai txapelketa, gazte afaria, soinu-joleak, lehiaketa xelebreia eta baratxuri zopa.

15-22 eta 29an

700 URTE- AZPEITIA
Bisita gidatuak herritarrentzat:
11:00etan erderaz eta 12:30ean euskaraz
Lekua: Udaletxeko Arkupetan

DVD EMANALDIA

17:00etan: *Rompedientes*
22:00: *En Tierra Hostil*
Lekua: Betharram Aretoa

15-16-21-23-29 eta 30ean

ASTEBURU MUSIKALA
Udal musika bandaren kontzertua
19:30etan
Lekua: udaletxeko arkupetan

16, igande

DVD EMANALDIA
17:00etan: *Rompedientes*
19:30etan: *En Tierra Hostil*
Lekua: Betharram Aretoa

19, asteazkena

UDAL FESTA BATZORDEAK antolatuturik
Bilera: San Inazioak- antolakuntza
19:00etan
Lekua: Udal Aretu Nagusian

22, larunbata

ELKARTASUN EGUNA

DVD EMANALDIA

17:00etan *Liberad a Willy 4*
22:00etan *Cheri*
Lekua: Betharram Aretoa

23, igandea

TXALINTXOKO EGUNA

DVD EMANALDIA

17:00etan: *Libertad a Willy 4*
19:30etan: *Cheri*
Lekua: Betharram Aretoa

25-26-27 eta 28an

LAGUN ONAK M.B.
Proiektzio emanaldia
20:30ean
Lekua: Lagun Onak M-Bko aretoa

26, asteazkena

Baratzagintza ekologiko ikastaroa
Udaleko Inguru sailak antolatuturik
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Enparan Dorretxea

27, osteguna

Baratzagintza ekologiko ikastaroa
Udaleko inguru sailak antolatuturik
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Enparan Dorretxea

28, ostirala

Bigarren eskuko azoka
17:30ean
Udaletxeko arkupetan

Emakumeen lokalean eskaintzen diren ikastaroetan landutako eskulanen erakusketa
17:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

29, larunbata

BERTAN Merkatarik Elkarteak antolatuturik:
Bertn Eguna

Emakumeen lokalean eskaintzen diren ikastaroetan landutako eskulanen erakusketa
11:00etatik 14:00etara/17:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

DVD EMANALDIA

17:00: *Starstruck*
22:00: *Up in The Air*
Lekua: Betharram Aretoa

TRINIDADE Jaiak 29tik 31ra. Nuarbe Auzoa

30, igandea

LAGUN ONAK M.B. XOXOTeko EGUNA

Emakumeen lokalean eskaintzen diren ikastaroetan landutako eskulanen erakusketa
11:00etatik 14:00etara/17:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

DVD EMANALDIA

17:00etan: *Starstruck*
19:30etan: *Up In The Air*
Lekua: Betharram Aretoa

botikaxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Maiatzaren 3, 8, 9, 13, 20, 24, 29 eta 30ean.

ARANBURU. Enparantza nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Maiatzaren 6, 18 eta 31n.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Maiatzaren 1, 2, 7, 12, 19 eta 27an.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Maiatzaren 4, 10, 15, 16, 21, 25 eta 28an.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Maiatzaren 5, 11, 14, 17, 22, 23 eta 26an.

